

Osakidetzako iruzurraren epaiketa

MARCOS MERINO PSE-EE-KO KIDEAK DEKLARATU DU EZ ZUELA LEHIAKETEN BARNE PROZESUAREN BERRIRIK IZAN

Osakidetzako goi kargu ohiek ukatu egin dute iruzurra izan zela

Mario Gonzalez Osakidetzako zuzendari ohiak adierazi duenez, pentsaezina da azterketak zuzentzeko diseinua iruzurra egin ahal izateko asmatu zela. Pedro Perez kudeaketa zuzendari ohiak, berriz, onartu egin du Madrilén Euro Appraisal enpresaren bulegoan izan zenean azterketak han zeudela, baina kutxak itxita zeudela ziurtatu du.

Felix Iriarte / Gasteiz

MARIO GONZALEZ 1990. urtean, Osakidetzako iruzurra egin zenean, zuzendari nagusia zen, eta hari egokitu zitzaion atzo deklarazioen txandari ekitea. Fiskalaren galderei bakarrik erantzun zien, uko egin baitzion akusazioen galderei erantzutea, eta ukatu egin zuen zerikusirik zuela lehiaketa publikoan izandako iruzurrean. «Egotzi didate azterketak zuzentzeko sistema asmatzea iruzurra egin ahal izateko; baina hori ez da inoren buruan sartzen, nire asmo bakarra iruzurra saihestea izan baitzen», esan zuen.

Azterketen manipulazioa begibistakoa dela dio fiskalak kalifikazio txostenean, eta manipulazio hori azterketak bukatu eta probak epaimahaiari itzuli bitartean egin zutela, hau da 1990eko abendua eta 1991ko martxoa bitartean.

Azterketak Euro Appraisal enpresak zuzendu zituen, eta orain enpresako hiru goi kargu akusatuen aulkian eseritzen dira. Hori dela eta, fiskalak galdetu zion ea zergatik kontratatu zen Euro Appraisal enpresa, are gehiago aintzat hartuta ez zuela inolako espezializariak azterketak zuzentzen. Gonzalezek beste batzuen esku utzi zuen erabaki hori. «Nik nahia-ngo nuen guztia ICSA enpresari ematea», erantzun zuen. ICSA enpresak azterketak egin zituen eta Osakidetzako bunkerrean azterketak gorde arteko ardura izan zuen. Gero Madrilera eramán zituzten Euro Appraisalek zuzen ziz-
tzen.

Bunkerreko giltzak gordetzea Gonzalezen eginkizuna zen; hala ere, «geroago» jakin ei zuen Pedro Perez Torresek ere kopiaren bat bazuela. Hala ere, azterketak han izan ziren bitartean ez zirela manipulatu ziurtatu zuen. Baina hamalau kutxa izan beharrean -sumarioan agertzen da zenbaki hori- gutxienez hogeiz izan behar zutela adierazi zuen Osakidetzako zuzendari ohiak. Hamasei lehiaketa izan ziren eta bakoitzari gutxienez kutxa bat zegokion. Gonzalezek esan zuen ez duela ulertzen zergatik agertzen diren hamalau azterketa kutxa bakarrik.

Iruzurrarekin zerikusirik ez duela agerian uzteko, adierazi zuen bere senide batzuk -arrebak, lehengusu bat eta koinatu bat- lehiaketara aurkeztu zirela eta ez zutela gainditu.

Perez Torresek errugabetzat jo du Marcos Merino • Pedro Perez Torre-



Mario Gonzalez, aulkian eseri diren akusatuetakobat, epaigelatik irteten. JOSEBA OLALDE

sek Gonzalezen aulkia hartu zuen ondoren. Osakidetzako kudeaketa zuzendari ohi eta zortzi epaimahaietako lehendakariak ukatu egin zuen iruzurra izan zela. «Ez nuen inoiz onartuko azterketaren bat manipulatzeari, eta ez zen manipulatu. Gaur, oraindik uste dut ez zela iruzurrik egin, ez zela inongo manipulaziorik egin», esan zuen bere abokatuaren galderari erantzunez.

Azterketak zuzendu zirenean

Madrilen Euro Appraisal enpresak duen egoitzan izan zela onartu zuen, haatik. Hori 1991ko urtarri-laren 9an izan zen, eta 15ean beste bidaiari bat egin zuen Madrilera. Atzo arte ukatu zuena onartu egin zuen, baina ondoren ziurtatu zuen bidaiari horiek ez zutela loturarik azterketekin.

Perez Torres Madrilera joan zen beste bi akusaturekin, Jose Angel Martin Osakidetzako tekniko ohiarekin eta Ana Isabel Jimene-

zekin. Bi horiek PSE-EEko kideak dira eta lehiaketa publikora aurkeztu ziren. Bien azterketak, beste berrehun gehiagorekin, manipulatu zituzten fiskalaren arabera. Perez Torresek, hala ere, esan zuen ez zituztela azterketak manipulatu Euro Appraisaleko bulegoan izan ziren bitartean. «Kutxak ireki gabe zeuden», esan zuen.

Bidaiaren arrazoiak beste bat izan zen, Perez Torresek esan zuenez. Javier Abasolo enpresako ar-

duradunak dei egin zien ez zuelako dirurik azterketak zuzentzen hasteko, eta arazo hori konpontzera joan omen ziren hirurak, Jose Angel Martin lagungarri izan zitekeelako eta Jimenez haren neska-laguna zelako: hirurek dirurik ez omen zuen Euro Appraisal enpresak Trip Enbajador hotelean zituen geletan hartu zuten ostatu, enpresaren kontura. Perez Torresek garrantzia kendu nahi izan zion horri: «Abasolok esan zidan erabili edo ez berdin ordaindu beharko zuela, eta horregatik onartu nuen».

Jose Luis Marcos Merino PSE-EEko kidea errugabetzat jo zuen, halaber, Perez Torresek. Onartu zuen Abasolorekin eta Marcos Merinorekin bazkaldu zuela, baina Euro Appraisalen «finantza arazoak» konpondu ahal izateko. «Marcos Merinok eskatu zidan laguntzeko, eta ez zen lehenengo aldia. Horregatik joan nintzen haiekin bazkaltzera, baina ez genuen lehiaketari buruz ezer aipatu», esan zuen.

Marcos Merino eta Appraisal enpresa • Marcos Merinok arratsaldean deklaratu zuen. Lehiaketen barne prozesuaren berririk ez zuela esan zuen eta Appraisal enpresarekin zuen harremana ez zegoela Osakidetzako azterketekin lotuta. Enpresa horren bideragarritasuna aztertzen ari zela deklaratu zuen, askotan egin dituelako enpresetan halako lanak. X

Auzia baliogabetzeko eskaera baztertu egin du salak

DEFENTSEK prozesua baliogabetzeko eskatu zuten astearteko lehen saioan; salak, hala ere, baztertu egin ditu alegazio guztiak. Besteak beste, 11 akusatu defentsak nahi zuten epaiketa bertan behera uztea, akusatu oinarriko eskubideak eta bermak judizialak bortxatu ei zirelako, eta, epaiketa egitekotan, Madrilgo Entzutegian egitea proposatu zuten, iruzurra han egin zelako.

Akusazioak, ordea, eskaeraren aurka agertu ziren, eta salak arrazoiak eman die.

Jone Goirizelaiak eta Kepa Landak -lehiaketan kaltetuak izan zirenen abokatua eta LAB sindikatuko abokatua, hurrenez hurren- banan-banan erantzun zieten defentsen asmoei eta haien argudioak desegin zituzten, atzo salak arrazoi eman baitziren.

Salak uste du epaiketa Gasteizen egin behar dela, eta ez Madrilén, ez dagoelako garbi iruzurra Gasteizen edo Madrilén egin zen baina Madrilén hartu zelako erabakia. Madrilén, asko jota, gertae-

raren bat edo beste besterik ez zen egingo, salaren arabera.

Hiru urteko preskripzioaren argudioa ere aztera bota du. Defentsak esan zuten kode berriak agerian uzten duela hiru urte akusaziorik egin gabe pasatuz gero ez dagoela prozesuan aurrera egiterik. Eta hori Jose Luis Marcos Merinoren, Euro Appraisal enpresako hiru kideen eta Isabel Herrerorenen mesederako izan zitekeen. Salak, haatik, akusazioko abokatu irizpideak aintzat har-

tu ditu, eta ebatzi du akusazioak eginak zeudela Mario Gonzalezen, Pedro Perez Torresen eta beste zenbait kideen kasuan, eta guztiak lotuta daudela ondorioztatu du atzo jakinarazi zuen autoan.

Marcos Merinoren defentsak, gainera, adierazi zuen ikerketa egin zitzaizkion aforatu izan zen bitartean eta ez zutela defentsarako eskubiderik izan. Salak ez du aintzat hartu argudioa, eta ikerketa egin izana zilegizkotzat jo du.